



URTEKO TXOSTENA 2022

JUAN SAN MARTIN LIBURUTEGIA



EDUKIA

LABURPENA IRUDIETAN _____	5
NABARMENDUAK _____	7
Jarduera berriak 2022an _____	7
Zurrumurruen aurkako irakurketen laborategia _____	7
Komiki tailerrak _____	8
Irakurketa errazeko jardunaldia _____	8
Ikastetxeekin batera lankidetzan aritzea _____	9
Liburutegiko tailerrak: Erabiltzaileen formazioa (ALFIN) _____	9
Liburutegi ibiltaria _____	10
Gida bibliografikoak lantzea _____	11
Irakurzaletasuna bultzatzea _____	13
Bularretik Mintzora programa- Mintzoan kux-kux _____	13
Zapatuko ipuina _____	14
Azalerako ipuinak (umeen irakurketa-kluba) _____	15
Liburuaren poltsa (umeen irakurketa-kluba) _____	17
Paperezko hegoak (umeen irakurketa-kluba) _____	18
Haur eta Gazteentzako Liburuaren Nazioarteko Eguna _____	19
Jirabira jolasa _____	19
Ikasleentzako erakusketa didaktikoak _____	20
Itsaspeko bihotzak literatura aretoa _____	20
Liburutegiko tailerrak- Erabiltzaileen formazioa _____	21
Komiki tailerrak _____	24
Liburua, ate bat Kulturarako _____	25
Helduentzako irakurketa-kluba gaztelaniaz _____	26
Idazlearekin harixa emoten (irakurketa-kluba euskeraz) _____	27
Irakurketa errazeko klubak _____	28
Liburuaren Nazioarteko Eguna _____	29
Irakurketa errazeko jardunaldia _____	30

Hitzaldiak eta liburu-aurrezpenak _____	32
Meetings at the Library – Réunions dans la Bibliothèque _____	33
Erakusketak interesguneetan _____	34
Zurumurruen aurkako irakurketen I. laborategia: Arrazistak gara? Irakur dezagun! ____	36
Juan San Martinen jaiotzaren ehungarren urteurrena (1922-2022) _____	38
Kopuruak _____	42
Bisitak / Erabiltzaileak _____	42
Liburutegiko txartela duten erabiltzaileak _____	42
Erabilera ordutegi berezian _____	42
Katalogazioa eta funtsa _____	43
Herriko Bilduma _____	43
Liburuklik _____	43
Maileguak _____	43
Desideratak _____	43
Internet zerbitzuaren erabilera _____	44
Web-orria, OPAC-en egindako kontsultak eta sare sozialak _____	44
Web-orria _____	44
OPAC (catálogo en línea) _____	44
Sare sozialak _____	44
Liburutegiko jardueretan izandako partaidetza _____	45
Erabiltzaileak _____	45
Liburutegira datozen pertsonak _____	45
Bazkideak _____	46
Funts bibliografikoa _____	48
Maileguak _____	48
Helduen atalean egindako maileguak _____	48
Umeen atalean egindako maileguak _____	51
Maileguak hizkuntzaren arabera _____	53
Mailegua sexuen arabera _____	54
Maileguak adinaren arabera _____	54
Automailegua _____	55

Liburutegiarteko mailegua _____	55
eLiburutegia zerbitzua _____	56
kontuak _____	58
Diru sarrerak _____	58
Gastuak _____	58
PRESTAKUNTZA _____	60
Horrez gain ... _____	61
Armeria Eskolak emandako funtsa _____	61

LABURPENA IRUDIETAN



Jarduera eta datuak bideo batean laburtuta

NABARMENDUAK

Jarduera berriak 2022an

Urtean zehar jarduera horietan parte hartu duten **pertsonak 2.697** izan dira (2021ean baino **782** gehiago), **261** saio antolatuta (2021ean baino **70** saio gehiago).

Zurrumurruen aurkako irakurketen laborategia

2022an jarduera berri bat egin dugu, zeinarekin espazio bat sortu nahi genuen belaunaldiz belaunaldi jasotzen ditugun eta pertsonen arteko bizikidetzaz zailtzen dituzten estereotipoen, aurreiritzien eta zurrumurruen inguruan hausnarketa eta lan pertsonala zein taldekoa egiteko.

Jardueraren helburuak hauexek izan dira: kategorien eraikuntza kulturalaren ondorio indibidual, sozial, ekonomiko eta politiko batzuez jabetzea, eta literatura-lanen irakurketa eta horien iruzkin kritikoa erabiltzea geure begirada berreraikitzeke eta gutaz eta besteaz galdetzeko.

Halako taldeak dinamizatzen esperientzia luzea duen **Mònica Leiva** bidaiari, kazetari eta literaturgilea izan da dinamizatzailea, eta 2 orduko 3 saio egin dira.



Komiki tailerrak

Apirilean, maiatzean, azaroan eta abenduan tailer batzuk egin dira, bai umeentzat bai helduentzat.

Martin Azpilikuetak eman ditu, eta bertan hainbat estilo landu dira (europarra, amerikarra, klasikoa, garaikidea...), bai eta komikigintzarekin lotutako alderi teknikoak ere: argumentua, gidoia, plangintza/storyboard, marrazkia, karikatura, estiloak, prozesua, grafikoa, tindura, kolorea, pertsonaiak sortzea, eta abar.

Helburuak izan dira komikiaren generoari protagonismo handiagoa ematea eta komikietako pertsonaiak marrazten eta sortzen ikastea.

Irakurketa errazeko jardunaldia

Jardunaldiaren helburua Liburutegiko Irakurketa Errazaren funts bibliografikoa aurkeztea izan zen, bai eta informazio-hitzaldi bat antolatzea ere, IE kontzeptua eta hura garatzeko aukerak aurkezteko, eta irakurketaren publiko potentzialarekin lan egin dezaketen pertsona edo erakunde interesdunei ezagutarazteko.

Irakurketa Errazari buruzko hitzaldi bat eman zen —irakurketarako eta informazioa eskuratzeko tresna bat— Blanca Mata Irakurketa Errazaren arduradunaren eskutik.

Geroago, **mahai-inguru** bat egin zen, non hainbat kolektibo, elkarte eta gurasoen ordezkari azaldu zuten zer egiten duten eta nori zuzenduta dagoen jarduera eta zertan lagun diezaieketen irakurtzeko zailtasunak dituzten pertsoneri.



Ikastetxeekin batera lankidetzan aritzea

Lankidetzan horretan bisita gidatuak egiten dira, erabiltzaileak hezi, irakurzaletasuna bultzatu liburu sorten aukeraketa eta maileguren bidez, eta gida bibliografikoak lantzen dira.

Liburutegiko tailerrak: Erabiltzaileen formazioa (ALFIN)



Liburutegiko tailerrak Eibarko Haur Hezkuntzako eta Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako ikasleei dago zuzendua, eta baita Helduen Hezkuntzako ikasleei eta pertsona helduei ere. Nahi duten ikastetxe guztiek har dezakete parte, irakasleek lagundurik.

Tailerrak adin tartetara daude egokituta, hainbat programaren bidez.

Helburuak hauek dira: liburutegiaren kontzeptura hurbiltzea; liburutegiko portaera-jarraitzaileak eta haren funtzionamendu-arauak ezagutzea eta jarraitzea; liburutegiaren espazioa ezagutzea; eskaintzen dituen zerbitzuak eta horiek erabiltzeko modua ezagutzea; liburuak eta gainerako materialak sailkatzeko sistema ezagutzea eta liburutegian errotuluen eta seinaleztapenen laguntzaz orientatzen ikastea; katalogoa erabiltzen ikastea; informazio-iturriak ezagutzea; bilaketa-prozesurako gaitzea (ALFIN), eta eLiburutegiaren funtzionamendu orokorra ezagutzea.

Ikasturtean zehar, batez ere, urrian eta azaroan egiten dira.

Liburutegi ibiltaria




Udal Liburutegiak, baliabideak batu eta zerbitzuak hobetzeko asmoz, laguntza-zerbitzua eskaintzen die eskoletako liburutegiei, kasu batzuetan prekarietate-egoeran eta pertsonalik gabe baitaude. Hala, Juan San Martín Liburutegiaren ekarpen nagusia eskariaren araberako liburuak eskaintzea da, izan gai jakin batekoak izan liburutegiko langileek hezkuntza-zikloetara egokitutako aukeraketa bat.

2018an erronkatzat hartu genuen ikastetxeekin dugun harremana sendotzea eta hainbat bilera egin genituen, azalduz zein ziren guru jarduerak eta zer zerbitzu eskain genezakeen. Harrez geroztik, ikastetxeek gero eta gehiago erabili dituzte Udal Liburutegiko zerbitzuak.

Eskaini genuen zerbitzuetako bat liburu sorten mailegua izan zen. 2020an, ikastetxeak eta Liburutegia itxita egon zirenez, ikastetxeetan egin zen mailegu-kopurua 491 izan zen, eta, 2021ean berriz ere **1.183 maileguraino** igo zen. Hala ere, 2022an eskaria txikiagoa izan da, eta **788 mailegu** baino ez dira egin. Jasotzen ari garen balorazioa oso ona da, eta horrek adre ematen digu bide

horretan jarraitzeko eta ezarri dugun aliantza hau estrategikotzat jotzeko.



Argi dago era horretako programak elkarlanean aurrera eramateak **bilduma bibliografikoaren erabilera areagotzen duela, baita liburutegiko bazkide-kopurua eta liburutegia topagune gisa erabiltzea ere.**

Izan ere, familiek, ikastetxeek eta liburutegiek helburu berbera dugu: **irakurmenaren gaitasuna eta irakurzaletasuna sustatzea.**

Gida bibliografikoak lantzea

Liburutegiak gida bibliografikoak lantzen ditu, batzuetan Udaleko beste sail batzuekin lankidetzan, kolektiboek, ikastetxeei eta herritarrei oro har irakurketak gomendatzeko. Gida horiek Liburutegiko webgunean argitaratzen dira, Argitalpenak atalean¹.

2022an, honako irakurketa-gida hauek eskaini dira:

- **Pertsona helduentzat:**

[Heldu/leku feministak \(8M\)](#)

[LGTBI+ gida](#)

[Indarkeria matxistaren aurrean, saretze feminista: irakurketa gida](#)

- **Neska-mutikoentzat eta gazteentzat**

[Berdintasuna helburu: genero berdintasuna lantzeko irakur gida](#)

[Gozatu udaberriko oporretan](#)

¹ <https://www.eibar.eus/eu/kultura/jsm-liburutegia/argitalpenak>

Gozatu udan

Gabonak

GOZATU UDAN IRAKURTZEN ETA JOLASEAN

2022KO
EKAINA

OPORRETAN IRAKURRI ETA EGIN JOLAS ELKARREKIN!



IRAKURZALETASUNA BULTZATZEA

Bularretik Mintzora programa- Mintzoan kux-kux



Programa hiru zutabetan oinarritzen da eta irakurketa sustatu nahi du 0 eta 8 urte arteko umeen artean. Zutabe horiek Liburutegia, Eskola eta Familia dira.

Hartzaileak

0 eta 8 urteko neska-mutikoak eta gurasoak

Helburuak

- Haur literatura bultzatzea (batez ere euskaraz)
- Liburutegia kalitatezko bibliografiaz hornitzea
- Haur literaturaren maileguak handitzea
- Gurasoei, hezitzaileei eta umei irakurketaz gozatzeko guneak eskaintzea.
- Gurasoei eta hezitzaileei boz gora irakurtzeko trebakuntza ematea.
- Umeek konpainian irakurtzeko gune lasai bat izan dezaten lortzea.
- Familiak kontzientziaztea irakurtzeak duen garrantziaz.
- Liburutegia ezagutaraztea hainbat arrazoirengatik hura ezagutzen ez duten familiei.

Urtean zehar.

Calendario

Bitartekoak

Liburutegia arduratzen da bibliografia erosteaz eta toki bat antolatzeaz Umeentzako Gelan. Ikastetxeen lankidetzaz garrantzitsua da, ikasleak programako liburuak maileguan eramatera etortzen baitira Liburutegira.

Programaren

arduraduna eta
laguntzaileak

Liburutegia. Proiektuan ikastetxeek eta familiek hartzen dute parte.

Aurrekontua

0,00 €

Balorazioa eta
estatistikak

Bularretik Mintzora programaren ondorioz, handitu egin da Liburutegiaren erabilera.

Egiaztatu dugunez, jende gehiago dator Liburutegira, eta **Umeen Liburutegian** dokumentu gehiago lagatzen dira programa hasi aurretik baino.

757 liburu ditugu eskuragarri programarako, eta 2022an **2.273 mailegu** egin dira.

Maileguei buruzko datuak liburuak dira gehienak, izan ere, gainerako euskarriak gero eta gutxiago eskatzen dira.

Zapatuko ipuina



Deskribapena	Urtean zehar 6 ipuin-kontaketa saio egiten dira hilaren azken zapatuan.
Hartzaileak	3 urtetik gorako umeak.
Helburuak	Irakurzaletasuna bultzatzea ahozko literaturaren bidez Aisialdirako aukerak ematea asteburuetarako
Egutegia	Urritik apirilera arte, hil bakoitzaren azken zapatuan.
Bitartekoak	Liburutegiko langileak. Ipuin-kontalariak kontratatzea. Kartelak, eta abar. Saioak Areto Nagusian egin dira, edukieran izan diren murrizketak direla-eta.
Proiektuaren arduraduna	Liburutegiko arduraduna
Gastua	2.090,00 € Beste saio bat Berdintasun Saila-Andretzeko aurrekontuaren kargura izan zen.
Balorazioa	Jarraipen bat egiten da honako hauek kontuan hartuta: saioan parte hartzen duen umeen kopurua, egun horretan zer eguraldi zegoen, saioaren kalitatea (ipuin-kontalariaren kalitatea, publikoa erakartzea lortu duen, eta abar).

172 neska-mutiko etorri dira egin ditugun 6 saioetara.

Azalerako ipuinak (umeen irakurketa-kluba)



Deskribapena	Klub honetan lortu nahi dena da familiek toki bat edukitzea irakurketa partekatzeko.
Hartzaileak	1 urteko eta Haur Hezkuntzako 2 eta 3 urteko geletako umeak, gurasoez lagunduta. Bi talde osatu dira.
Helburuak	Helburua da entzumena, ukimena, ikusmena, usaimena eta dastamena ate bat izatea literaturara hurbiltzeko. Abestiak, ipuin laburrak, hitz-jokoak... berreskuratuko ditugu azaleko ipuinetan erabiltzeko. Halaber, liburuak eskaintzen dizkiguten hainbat baliabide ezagutuko ditugu.
Noiz	Urtarriletik maiatzera eta urritik abendura.
Bitartekoak	Saioetan landutako liburuak erosi egingo dira, baldin eta Liburutegiak ez baditu.
Proiektuaren arduraduna	Liburutegiko langileak. Saioen dinamizatzailea Saroa Bikandi da.
Aurrekontua	3.766,00 €.
Balorazioa	Hiru talde izan ditugu uda arte eta lau urritik abendura. 27 saio egin dira eta 233 umek hartu dute parte egindako saioetan, 103 mutiko eta 103 neskatila.

Liburuen poltsa (umeen irakurketa-kluba)



Deskribapena Klub honetan lortu nahi dena da familiek toki bat edukitzea irakurketa partekatzeko.

Hartzaileak Haur Hezkuntzako 4 eta 5 urteko geletako umeak eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. geletakoak, gurasoez lagunduta. Lau talde osatu dira.

Helburuak Irakurketa-kluba dinamizatzea, jarduerak, jolasak eta dinamikak sustatuz motibazioa eta liburura gerturatzea bultzatzeko, desiotik, interes propioetatik eta fantasia pertsonaletatik abiatuta.

Noiz Urtarriletik maiatzera eta urritik abendura.

Bitartekoak Saioetan landutako liburuak erosi egingo dira, baldin eta Liburutegiak ez baditu.

Proiektuaren arduraduna Liburutegiko langileak. Saioen dinamizatzailea Saroa Bikandi da.

Aurrekontua **2.929,19 €.**

Ebaluazioa. **Hiru talde** izan ditugu uda aurretik eta bi urritik abendura. **162 haurrek** hartu dute parte **egindako 21** saioetan, **78 mutikok eta 84 neskatilak.**

Paperezko hegoak (umeen irakurketa-kluba)



Deskribapena

Garbi dago literaturak eta letren munduak aberastu egiten dutela ume eta gaztetxoek garapena. “Paperezko hegoak” programan tailer bihurtzen dugu irakurketa-kluba, eta saio bakoitzean, irakurri dena taldean lantzeaz gain, sormen-ariketa bat egiten dugu.

Hartzaileak

Lehen Hezkuntzako 3. kurtsoko ikasleak eta Bigarren Hezkuntzako 1. kurtsokoak.

Helburuak

Parte hartzaileek beldurra galtzen diote irakurtzen dituzten liburuak komentatzeari eta oso ondo pasatzen dute.

Gainera, lortzen dugu umeak ez urruntzea erabat irakurketatik, eta aukera ematen diegu ikastetxean programatuta dauden baino liburu gehiago irakurtzeko.

Noiz

Urtarriletik maiatzera eta urritik abendura.

Bitartekoak

Saioetan landutako liburuak erosi egingo dira, baldin eta Liburutegiak ez baditu. Parte-hartzaile bakoitzarentzat liburu bat ekartzen da liburutegiarteko maileguan.

Proiektuaren arduraduna

Liburutegiko arduraduna. Saioetako dinamizatzaileak Naiara Rubio eta Txomin Magdalena izan dira.

Aurrekontua

Guztira, **2.810,00 €**.

Bitartekoak Erruleta, galdera-jolasak eta sariak (50 euroko bonu bat puntu gehien lortu dituzten hiru pertsonari liburuak erosteko, diploma bat, San Joango zapi bat, eta barraketarako fitxak.

Proiektuaren arduraduna Liburutegiaren arduraduna eta umeen liburutegiko langileak.

Aurrekontua **156,00 €** sarietan.

54 pertsonak eman zuten izena eta **26** iritsi ziren amaierara. Jolasean, bi hilabete horietan, **405 liburu** irakurri ziren.

Ebaluazioa. Irabazleak:
 Kategoria Gorria (5-7 urte): Alazne Avellaneda, 575 punturekin.
 Kategoria Berea (8-11 urte): Jone Avellaneda, 495 punturekin.
 Kategoria Horia (12 urtetik aurrera): Mara Esteban, 115 punturekin.

Ikasleentzako erakusketa didaktikoak

Itsaspeko bihotzak literatura aretoa



Deskribapena	Literatur gune honetan genero-berdintasuna lantzen da euskarazko haur literaturaren bidez. Horretarako, Galtzagorri elkarteak ibilbide artistiko-pedagogiko bat diseinatu du hezikidetzara ardatz duena.
Hartzaileak	Batez ere pentsatua dago Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleek bisita gidatuak egin ditzaten. Hortaz, bisita horiek ikastetxeekin hitzartuko dira. Familiarentzako saio bat ere egiten da.
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Literatura kohezitzailea ezagutzera ematea bai neska-mutikoei bai helduei. • Artean eta estetikan heztea begirada artistikoa landuz. • Praktika pedagogiko kohezitzaile bat aurrera eramatea. • Imaginario kolektiboan dauden sexu eta genero estereotipoak gainditzeko aukera ematea.
Egutegia	Martxoaren 21etik 31ra.
Bitartekoak	Eibarko Errebal Plazia espazio berria erabili dugu.
Proiektuaren arduraduna	Liburutegia, Galtzagorri elkartearen bidez. Udalaren Berdintasun Sailarekin lankidetzan.
Aurrekontua	717,50 € Beste 717,50 €, Berdintasun Sailak jarri ditu.
Balorazioa	Parte hartu zuten ikastetxeek balorazio positiboa egin dute. Erakusketan 209 neska-mutikok (103 mutiko eta 106 neska) parte hartu dute, 6 ikastetxetako 10 taldetan banatuta. Familien saiora 27 pertsona joan ziren. Ikastetxe bakar batek esan dio ezetz parte hartzeko eskariari.

Liburutegiko tailerrak- Erabiltzaileen formazioa

Deskribapena	Liburutegiko tailerra Eibarko Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako ikasleei dago zuzendua. Nahi duten ikastetxe guztiek har dezakete parte, irakasleek lagundurik. Tailerrak adin tarteetara daude egokituta. Haur Hezkuntza
--------------	--

- **LIBURUTEGIAN KONTU-KONTARI Haur Hezkuntzako 2. eta 3. mailetako** ikasleei zuzendutako saioak, zeinetan ikasleak estreinako zerturatzaren diren Liburutegira.

Lehen Hezkuntza

- **IRAKURTZEN BADAKIT:** Lehen Hezkuntzako **1. zikloko** ikasleei zuzendutako saioak.
- **EGUN BAT LIBURUZAIN** Lehen Hezkuntzako **2. zikloko** ikasleei zuzendutako saioak.
- **LIBURU ARTEAN** Lehen Hezkuntzako **3. zikloko** ikasleei zuzendutako saioak.

Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa

INFORMAZIOA HELBURU: Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikastetxeetako ikasleei zuzendua.

Hartzaileak	Ikastetxeetako ikasleak eta kolektiboak.
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Liburutegi kontzeptura hurbiltzea. • Liburutegiko portaera-jarraibideak eta horien funtzionamendu-arauak ezagutzea eta jarraitzea. • Liburutegiaren espazioa ezagutzea. • Eskaintzen dituen zerbitzuak eta haiek erabiltzeko moduak ezagutzea. • Liburuak eta gainerako materialak sailkatzeko sistema ezagutzea, eta liburutegian orientatzen ikastea errotuluen eta seinaleen laguntzarekin. • Katalogoa erabiltzen ikastea. • Informazio-iturriak ezagutzea. • Bilaketa-prozesua egiten ikastea (ALFIN).
Noiz	Ikasturtean zehar, batez ere, urrian eta azaroan.
Bitartekoak	Ordenagailuak (OPAC) eta jolasean erabilitako materiala: fitxak, eta abar.
	Jardueretan metodologia parte-hartzailea, ludikoa eta kooperatiboa erabiltzen da, baita baliabide eta tresna digitalak ere.

Prestakuntza-blokeak ezartzean, ikasleen adina kontuan hartuta, saioetan lortutako ezagutza metagarria izatea bilatzen dugu.

Proiektuaren
arduraduna

Tailerrak Liburutegiko langileek egiten dituzte. Liburutegiak emailaz jakinarazten die ikastetxeei jardueraren daten berri eta egutegi bat ezartzen da.

Aurrekontua

0,00 € Pertsonal-gastuak

Jarduera oso ondo baloratzen dute udalerriko ikastetxeetako irakasleek. 7 ikastetxe daude herrian eta normalean denek parte hartzen dute.

Ebaluazioa

Aurten, oraingoz, bisita hauek izan ditugu:

19 saio ikastetxeetako taldeekin hitzartuak. **396 ikaslek** hartu dute parte (203 neska eta 193 mutil)

2 saio EPAko ikasleekin (Helduen hezkuntza). **Guztira 30 lagun** (12 emakume eta 19 gizon).



Komiki tailerrak



Gelan egiten den lan teoriko eta praktikoaz gain, honako edukiak

landuko dira:

- Deskribapena
- Komikien irakurketa-taldeak
 - Lan-kuadernoa (“Urban sketchers” estiloko jarduerak)
 - EHUKo komiki-marrazkilarien hitzaldiak
 - Tailerretan ekoiztutako materialaren autoedizioa
 - Kurtso amaieran erakusketak egingo dira jatorrizkoekin.

Neska-mutikoak: Lehen Hezkuntzako 4. kurtsoetik Bigarren Hezkuntzako 1.ra.

Hartzaileak

Urritik abendura bitartean bi talde egon dira, bat neska-mutikoentzat eta beste bat helduentzat.

Helburuak

- Protagonismo handiagoa ematea komikiaren generoari.
- Komikietako pertsonaiak marrazten eta sortzen ikastea.

Egutegia

Hiru saio apirilean eta maiatzean eta 4 saio azaroan eta abenduan.

Bitartekoak

Tailer horiek **Martin Azpilikueta Iparaguirre** eibartarrak eman ditu, Portalean

Proiektuaren arduraduna

Liburutegiaren arduraduna eta umeen liburutegiko langileak.

Aurrekontua


1.394,86 € (11 saio).

Ikastaroa amaitzen denean, inkesta bat pasatzen da asebetetze-maila neurtzeko.

Balorazioa

2022an bi talde egon dira. Umeen taldean 7 saio egin dira eta **86 umek** parte hartu dute (20 neska eta 66 mutil). Helduen taldean, 4 saio egin dira eta **28 pertsonak** hartu dute parte (17 emakume eta 11 gizon).

Liburua, ate bat Kulturarako



Ekimen hau zokketa bat da: irakurleen artean sarrerak zokketatzen dira bai Eibarko Udalak bai herriko beste talde batzuek antolatutako ekitaldietarako.

Deskribapena

Erabiltzaileak liburu bat maileguan hartzen duen bakoitzean, paper bat jasotzen du; gero liburua itzultzean papera entregatu behar du (bere datuekin), eta ikuskizunetara doan joateko zokketan sartzen da.

Helburuak	Liburua entretenitzeko aukeratzen duten erabiltzaileak "saritzea".
Egutegia	Urtean zehar. Aurten ekainera amaiera arte bakarrik egin da.
Bitartekoak	Liburutegiko langileak eta sarrerak, Kultura Sailak ikuskizunetarako ematen dituenak.
Proiektuaren arduraduna	Liburutegia
Aurrekontua	Diru-sarreraren kostua. Kulturako aurrekontuaren kargu.
Balorazioa	Bina sarrera zokketatu dira 37 ikuskizunetarako , horietatik 33 helduentzat, eta 4 haurrentzat; guztira 224 gonbidapen banatu dira, 83 emakumeen artean eta 30 gizonen artean .

Helduentzako irakurketa-kluba gaztelaniaz



Bilerak egiten dira hilero aurrez aukeratutako liburuak Deskribapena komentatzeko. Bilera horiek pertsona batek koordinatzen eta dinamizatzen ditu, liburuen irakurketa gidatuz.

Hartzaileak	16 urtetik gorako pertsonak
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Literaturan interesa duten pertsonen arteko harremana bultzatzea. • Aukeratutako liburuen iruzkin-trukea sustatzea. • Irakurleei aukera ematea beren lan pertsonala klubeko beste kide batzuen edo dinamizatzailearen iruzkin, balorazio eta abarrekin aberasteko. • Obra baten irakurketan sakontzea klubeko kideen eta dinamizatzailearen laguntzarekin, irakurtzerakoan sarri ihes egiten diguna aurkitu nahian.
Egutegia	8 saio egiten dira urtean, bat hilean behin.
Bitartekoak	Parte-hartzaile bakoitzari aukeratutako liburua ekartzen zaio Liburutegiarteko Maileguaren bidez.
Proiektuaren arduraduna	Liburutegiko arduraduna. Dinamizatzailea: Peru Magdalena Arriaga Saioetako batean Joseba Sarrionaindiak ere parte hartu du eta beste batean Xabier Mendigurenek.

Aurrekontua **2.320,00 €.**

Balorazioa

Ikasturte amaieran inkesta bat egiten zaie parte-hartzaileei eta saioak dinamizatzen dituen pertsonari. Galderak ikastaroari, dinamizatzaileari, azpiegiturari eta plangintzari buruzkoak dira. **112 pertsonak** hartu dute parte (88 emakume eta 24 gizon).

Oharrak

Gure klubaz gain, beste 6 irakurketa-klubei lagatzen dizkiegu liburuak. Hain zuzen, hauexei: **Pagatxa eta Biztu elkarteak** eta **Litertxoko-k** antolatzen duena. Halaber, Irakurketa errazeko 4 talderi ere ematen diegu zerbitzua: Eibarko **“Egogain”** Zentro Gerontologikoko Eskuhartze psikosozialeko taldea, **San Andres Egoitzako** Fundazio Publikoko taldearena, **AGIFESena**, eta **ATZEGirena**.

Idazlearekin harixa emoten (irakurketa-kluba euskeraz)



Deskribapena

Bilerak egiten dira hilero aurrez aukeratutako liburuak komentatzeko. Bilerak liburuaren **egilea bertan dela** egiten dira; idazleak bere ibilbideari buruz hitz egiten du, liburuan erabilitako literatura-prozesuaz, parte-hartzaileen galderi erantzuten die, eta abar.

Hartzaileak 16 urtetik gorako pertsonak

Helburuak

- Euskaraz irakurtzea bultzatzea
- Literaturan interesa duten pertsonen arteko harremana bultzatzea.

- Aukeratutako liburuen iruzkin-trukea sustatzea.
- Irakurleei aukera ematea beren lan pertsonala klubeko beste kide batzuen edo dinamizatzailearen iruzkin, balorazio eta abarrekin aberasteko.
- Obra baten irakurketan sakontzea

Egutegia	8 saio egiten dira urtean zehar, hilean bat, urtarriletik maiatzera eta urritik abendura bitartean.
Bitartekoak eta lankidetzak	<p>Parte-hartzaile bakoitzari aukeratutako liburua ekartzen zaio Liburutegiarteko Maileguaren bidez.</p> <p>...Eta kitto! Euskara Elkartek lankidetzan dihardu Liburutegiarekin jarduera honetan.</p> <p>Euskara bultzatzeko Udalak duen Plan Estrategikoaren barruan kokatzen da jarduera.</p> <p>Euskal Idazleen Elkartek lagundu egiten du, idazleekin harremanetan jarriz eta saioaren zati bat diruz lagunduz.</p> <p>Aurten idazle hauek izan ditugu: Nerea Arrien, Kattalin Miner, Amaia Telleria, Bertol Arrieta, Uxue Alberdi, Txakur Gorria, Uxue Apaolaza eta Oier Guillan.</p>
Proiektuaren arduraduna	Liburutegiko arduraduna. Dinamizatzailea: Antxon Narbaiza uda arte; irakurketa bakoitzaren iruzkina banatzen die parte-hartzaileei. Urritik aurrera, dinamizatzailea Ainhoa Aldazabal Gallastegui da.
Aurrekontua	1.940,00 €.
Ebaluazioa.	75 pertsonak parte hartu dute egin diren saioetan (50 emakume eta 25 gizon).

Irakurketa errazeko klubak

Gure irakurketa-klubez gain, **irakurketa errazeko** 3 talderi lagatzen dizkiegu liburuak. Hain zuzen, hauexei: Eibarko **Egogain** Zentro Gerontologikoko Esku-hartze psikosozialeko taldea, **San Andres Egoitzako** Fundazio Publikoko taldea eta **AGIFES**. Irakurketa errazeko jardunaldiaren ondoren, **ATZEGI**ko taldea ere batu da.

Gainera, toki berezi bat dugu Liburutegian, non irakurtzeko zailtasunak dituzten pertsoneri irakurketa errazeko liburuak eskaintzen dizkiegun.

Talde hauei **17 lote** laga dizkiegu, **170 libururekin**.

Liburuaren Nazioarteko Eguna



Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko, **“Hitzak, liburuak eta liburutegiak gerran kontra”** poema- eta testu-irakurketa antolatu dugu, **Idoia Carramiñana** eta **Maite Lorenzoren** eskutik.

Narratzailea **Izaskun Asua** izan zen.

Liburutegiek eta liburuak beti sufritu dituzte erasoak gerretan.

Deskribapena Kultura, ezagutza, behin eta berriz erasotu dira nahita historian zehar.

Liburutegiak ahotsa altxatu nahi du gerren aurka, nahiz eta jakin irakurtzeak eta historia ezagutzeak ez duela saihesten berriz errepikatzea...

Ekitaldik **3 zati** izan ditu:

zattia: Gerraren izugarrikeria. Gerra dator, mina, haserrea.

Lorenza Mazzeti, Pedro Carbonell, Agota Kristof, Primo Levi eta Nijole Miliauskaiteren testuak eta poemak.

2. zatia: Dolua. Tristura, malenkonia, iraganmina...

Wislaw Szymborska, Bertolt Brecht, Ángel González eta Ingeborg Bachmannen testuak eta poemak.

3. zatia: Bizitzarako, esperantzarako unea.

Harkaitz Canoren eta Angela Figuroaren testuak.

Hartzaileak	Publiko orokorra
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Liburuaren Eguna ospatzea eta helduentzako ezohiko jarduerak eskaintzea • Irakurzaletasuna bultzatzea
Noiz	Apirilak 8
Bitartekoak	3 pertsona kontratatzea eta Liburutegiko langileak
Proiektuaren arduraduna	Liburutegiko arduraduna
Aurrekontua	Gastua: 544,50.
Ebaluazioa.	15 pertsonak hartu dute parte (10 emakume eta 5 gizon).

Irakurketa errazeko jardunaldia



Jardunaldiaren helburua Liburutegiko Irakurketa Errazaren funts bibliografikoa aurkeztea izan zen, bai eta informazio-hitzaldi bat antolatzea ere, IE kontzeptua eta hura garatzeko aukerak aurkezteko, eta irakurketaren publiko potentzialarekin lan egin dezaketen pertsona edo erakunde interesdunei ezagutarazteko.

Deskribapena

Hitzaldia: Irakurketa erraza: Irakurketarako eta informazioa eskuratzeko tresna

Hizlaria: Blanca Mata, Lectura Fácil Euskadi-Irakurketa Erraza-ren arduraduna.

Hitzaldiaren **hizkuntza:** Gaztelania

Jarraian, **mahai-inguru** bat² egin zen, non hainbat kolektibo, elkarte eta gurasoen ordezkari azaldu zuten zer egiten duten eta nori zuzenduta dagoen jarduera eta zertan lagun diezaieketen irakurtzeko zailtasunak dituzten pertsonei.

Hartzaileak	Publiko orokorra
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Irakurketa errazaren kontzeptuaren zabalkundea egitea Eibarren • Liburutegian irakurketa errazari eta irakurketa irisgarriari buruzko bi interesguneen berri ematea (helduak eta umeen aretoa).
Noiz	2022ko martxoak 3, 17:30etik 19:30era
Bitartekoak	Hizlariaren kontratazioa eta irakurketa errazarekin lotutako hainbat talderi egindako gonbita.
Proiektuaren arduraduna	Liburutegiko arduraduna
Aurrekontua	Gastua: 211,75.
Ebaluazioa.	Oso jende gutxi egon zen —10 pertsona baino gutxiago—, baina emaitza ona izan zen. Parte-hartzaileek eskertu egin zuten informazioa eta hortik irakurketa errazeko talde berri bat eratu zen Liburutegian, ATZEGIkoa hain zuzen. Bertan egon zen irakasle batek interes handia adierazi zuen eta datorren ikasturtean bere ikastetxean irakurketa erraza landu nahi duela eta, gure lankidetzara eskatu zuen.
Oharrak	Gure irakurketa-klubez gain, irakurketa errazeko 4 talderi lagatzen dizkiegu liburuak. Hain zuzen, hauexei: Eibarko Egogain Zentro

² Familien eta ATZEGI, EPA, AGIFES eta San Andrés Egoitzako ordezkariak

Gerontologikoko Esku-hartze psikosozialeko taldea, **San Andres Egoitzako** Fundazio Publikoko taldea, **AGIFES**koa eta orain baita **ATZEGI**koa ere.

Gainera, toki berezi bi ditugu Liburutegian, non irakurtzeko zailtasunak dituzten pertsonen irakurketa errazeko liburuak eskaintzen dizkiegun. Aurten gune bat zabaldu dugu Umeen Liburutegian.



Hitzaldiak eta liburu-aurkezpenak



Deskribapena	Gai jakin bati buruzko hitzaldiak edo liburu-aurkezpenak egiten dira. Roberto Villarrealen “El proyecto Escipión” liburuaren aurkezpena.
Hartzaileak	Publiko orokorra
Helburuak	Idazleak irakurleengana hurbiltzea Kulturaren zabalkundea
Egutegia	Urtean zehar. Maiatzak 20.
Bitartekoak	Kartelak eta hedapena. Aurkezpen honetan, egilearen bi lagun kazetari egon ziren.
Proiektuaren arduraduna	Liburutegiko arduraduna
Aurrekontua	0,00 €
Balorazioa	Halako jardueretara ez da jende askorik joaten (aurten 55 lagun), ez bada herriarekin lotura dutela edo bertako egileak direla.

Meetings at the Library – Réunions dans la Bibliothèque



Jarduera honetan bilerak egiten dira aldi berean behin hizkuntzak deskribatzen eta lantzeko. Liburutegia erabiltzen da hizkuntza lantzeko topaleku gisa, gaurkotatutako edozein gairi buruz hitz egiteko aitzakiarekin.

- | | |
|-----------|--|
| Helburuak | <ul style="list-style-type: none"> • Liburutegia erabiltzea hizkuntzak modu ez formalean ikasteko. • Hizkuntzak ikasteko material egokia erostea proposatzea. • Hizkuntzak ikasteko Liburutegiak duen funtsa erabiltzea. • Liburutegiko erabiltzaileen esperientziaz eta ezagutzaz baliatzea. • Harreman sozialak bultzatzea. Liburutegia sozializazio-gune bihurtzea. • Gure erabiltzaileen artean interesa pizten duten jakintza-esparruei bide ematea. • Liburutegia, hizkuntzen mintza-praktikaren bidez, lan-profila hobetzeko toki gisa erabiltzea. • Jarduera ikaskuntza formalaren osagarri gisa planteatzea, eta ez haren ordezeko. |
|-----------|--|

Noiz	Urtarriletik ekainera eta urritik abendura.
------	---

Bitartekoak	Herriko hizkuntza-akademietako irakasleak kontratatu dira.
-------------	--

Proiektuaren arduraduna	Liburutegiko arduraduna.
-------------------------	--------------------------

Aurrekontua	3.369,45 €
-------------	-------------------

Parte hartu dutenen balorazioa oso positiboa da, atzerriko hizkuntza bat doan lantzeko aukera ematen baitzaie.

Ebaluazioa.	23 saio egin dira frantsesez eta guztira 201 pertsonak hartu dute parte (142 emakume eta 59 gizon); ingelesez 30 saio egin dira eta 140 pertsonak hartu zuten parte (80 emakume eta 60 gizon).
-------------	--

Erakusketak interesguneetan

Deskribapena	Urtean zehar gure funts bibliografikoaren erakusketak antolatzen ditugu, Portaleko kultura-etxean antolatutako jarduerak, efemerideak edo beste ekitaldi batzuk aitzakia hartuta.
--------------	---


Hartzaileak	Publiko orokorra
-------------	------------------

- | | |
|-----------|---|
| Helburuak | <ul style="list-style-type: none"> • Liburutegiko funtsaren zabalkundea egitea • Berriak ez diren materialei irteera ematea • Euskaraz irakurtzea bultzatzea |
|-----------|---|

Noiz	Urtean zehar
Bitartekoak	Kartelak, erakus-mahaiak eta Liburutegiko funtsa. Batzuetan, gidak egiten ditugu paperean zein formatu digitalean, eta horien zabalkundea egiten dugu gure webguneraren bidez: https://www.eibar.eus/eu/kultura/jsm-liburutegia/argitalpenak
Proiektuaren arduraduna	Liburutegiko langileak.
Aurrekontua	0,00 € Langileriaren gastuak
Ebaluazioa.	<p>Beti nabaritzen da interesgunean jartzen den materiala maileguan eramaten dela.</p> <p>Oraingoz, hauxek dira aurten egin ditugun erakusketak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Irakurketa gida eta Heldu/leku feministak (8M 2022) interesgunea • Irakurketa gida Berdintasuna helburu, haur irakurleentzat • "Itsaspeko bihotzak" erakusketa didaktikoa • Hitzak, liburuak eta liburutegiak gerren aurka • Hezkuntzaren aldeko mundu mailako kanpaina: "Altxa ezazu ahotsa irakasleen alde" • Harrotasun LGTBI+aren nazioarteko Eguna: LGTBI+fobiarik gabeko espazioa • Goza ezazu udan, irakurriz eta jolastuz • Javier Marías • Irakurtzen ikasten dugu • Alzheimerren nazioarteko eguna • Indarkeria matxistaren aurrean, sare feministak. • Gabonak Irakurketa-gida eta interesgunea haur-liburutegian. • Gomenda itzazu zure irakurketak Gabonetako zuhaitzean.



Zurrumuruen aurkako irakurketen I. laborategia: Arrazistak gara? Irakur dezagun!



Deskribapena Gune bat da belaunaldiz belaunaldi jasotzen ditugun eta pertsonen arteko bizikidetzaz zailtzen dituzten estereotipoen, aurreiritzien eta zurrumuruen inguruan hausnarketa egiteko.

Hartzaileak	Jardueran izena ematen duten 16 urtetik gorako pertsonak.
Helburuak	Kategorien eraikuntza kulturalaren ondorio indibidual, sozial, ekonomiko eta politikoetako batzuez jabetzea. Literatura-lanen irakurketa eta liburuen iruzkin kritikoa erabiltzea gure begirada berreraikitzeke eta gutaz eta besteaz hausnartu ahal izateko.
Noiz	Urriak 17: <i>Identidades asesinas</i> , Amin Maaloufena (ENTSEGUA) + <i>Ojos azules</i> , Toni Morrisonena (NOBELA) Azaroak 14: <i>Groenlandia Manhattan</i> Chloe Chacroudetena (KOMIKIA) + <i>Sueños en el umbral</i> Fatima Mernissirena (MEMORIAK) Abenduak 12: <i>El corazón de las tinieblas</i> Joseph Conradena (NOBELA) + <i>Nuestra hermana aguafiestas</i> Ama Ata Aidooena. (NOBELA)
Bitartekoak	Kartelak eta hedapena. Monica Leiva kazetariak saioak dinamizatzen ditu
Proiektuaren arduraduna	Liburutegiko arduraduna
Aurrekontua	900,00 €
Ebaluazioa.	16 pertsonak hartu dute parte (10 emakume eta 6 gizon). Asebetetze-inkestan oso ondo baloratu da saioak eman zituen pertsona, baita saioen edukia ere. Baina adierazi dute jardueraren izenburuak nahasmena eragin dezakeela. Uste dute beste izen bat izan beharko lukeela.

Juan San Martinen jaiotzaren ehungarren urteurrena (1922-2022)

Deskribapena

Juan San Martinen jaiotzaren mendeurrena dela eta, Eibarko Udalak hainbat ekitaldi antolatu ditu, jarraian zehazten direnak:

Ekainaren 22an, **Euskaltzaindiak** bere osoko bilkura eta biltzar orokorra ospatu zuen Eibarko Udalaren Batzar Aretoan. Jarraian Euskaltzaindiako kideak Liburutegira joan ziren, ohorezko plaka bat inauguratzera.

Azaroaren 7an, Juan San Martinen obra osoaren **digitalizazioa aurkeztu** zen. Proiektua Eibarko Udalaren, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Jakin Fundazioaren lankidetzari esker gauzatu ahal izan da.

Ekimenean egon ziren Harkaitz Millan Kultura diputatua, Bingen Zupiria Kultura sailburua, Jon Iraola Eibarko alkatea eta Lorea Agirre Jakin Fundazioko zuzendaria. San Martinen senideak eta lagunak ere egon ziren.

Liburutegiak, zeinak Juan San Martinen izena daraman, eta gutxiago ez izateko, **oroimenezko erakusketa bat** prestatu zuen haren bizitzako etapa nagusien berri emanez: bere biografiaren data garrantzitsuak, autodidakta-izaera, euskararekiko maitasuna, euskaltzain izatera eramanez, Eibarko klub deportiboarekiko harremana, sortu zuen lan oparoa, bere ibilbidean zehar lortutako sariak... Hainbat eta hainbat alderdi, gure bildumako argazki eta liburuekin islatu nahi izan genituenak.

Abenduaren 12tik 16ra arteko astean **bisita gidatuak** egin ziren **Nerea Alustiza** eibartarraren eskutik, Bigarren Hezkuntzako eta

Batxilergoko ikasleekin. Gainera, **abenduaren 12an bisita gidatu bat eskaini genuen** 19:00etan.

Abenduaren 14an, hitzaldi bat antolatu genuen; bertan, **Iñaki Osoro Eibar Kirol Elkarteko presidenteak** Juanitoren mendizaletasuna eta klubean egindako lana gogoratu zituen.

Oier San Martinek, Juan San Martinen semeak, bere aitak bere bizitzan zehar aztertu eta garatu zituen alderdietako batzuk azaldu zizkigun, hala nola mendizaletasunerako joera. Izan ere, gure protagonistak euskal gizartearen hainbat esparru landu zituen.

Hartzaileak	Publiko orokorra
Helburuak	Juan San Martinen figura nabarmentzea eta ezagutaraztea
Noiz	2022ko ekainetik abendura
Bitartekoak	Gipuzkoako Artxibategiko argazkien binilozko erreprodukzioak
Proiektuaren arduraduna	Udal Liburutegia, Ego Ibarra Batzordea eta Udalaren Euskara Saila.
Aurrekontua	1.568,08 € , Liburutegiko gastuari dagokiona

35 lagun joan dira erakusketara.

JAKIN fundazioak Juan San Martinen lanen digitalizazioaren inguruan egindako aurkezpenean 25 pertsona egon ziren.

Ebaluazioa. Bisita gidatu orokorrean **8 lagun** egon ziren eta ikastetxeekin egindakoetan **131 lagun**.

Hitzaldian **12 pertsona** egon ziren.





KOPURUAK

Bisitak / Erabiltzaileak

96.246 bisita, 316 pertsona egunean (% 22 +)

Liburutegiko txartela duten erabiltzaileak

11.343 pertsona izan ziren (biztanleriaren % 43,24³)

Pertsona helduak	15 urtetik beherakoak	Erakundeak	Liburutegiak
9.235	2.477	92	13
Emakumeak	Gizonak	Ez aplikagarria ⁴	Ez binarioa
6.432	5.279	105	1

2022an alta eman duten bazkideak: **494**.

Pertsona helduak	15 urtetik beherakoak	Erakundeak	Liburutegiak
231	258	3	2
Emakumeak	Gizonak	Ez-aplikagarria	Ez-binarioa
255	234	5	0

Erabilera ordutegi berezian

1.703 pertsonak erabili zuten Liburutegia eguerdian, azterketengatik egun osoa zabalik izaten dugun garaian.

³ Biztanleria: 27.330 (2022/12/31)

⁴ Erakundea

Katalogazioa eta funtsa

Funtsa osoa 2022ko abenduaren 31n: **89.182**

Altak 2022an: **3.491**

Dokumentuak biztanleko Eibarren: **3,26**

Bajak

Dokumentu galduak 2022an: **43**

Dokumentu espurgatuak: **1.924**.

Herriko Bilduma

Saiatzen gara Eibarren, Eibarri buruz edo Eibarko egileek argitaratzen duten guztia eskuratzen. Une honetan **3.738** dokumentu ditugu gure katalogoan; haietako batzuk bikoiztuta daude. Funts horren % 65 seriatutako argitalpenak dira.

Liburuklik

85 monografia ditugu digitalizaturik Euskariana⁵-n, edozein pertsonak kontsultatu edo irakur ditzan Internet erabiliz.

Maileguak

2022an **30.610** mailegu egin ziren, **101** egunean, eta 2021ean 107. Oro har, liburutegiak beheranzko joera izaten ari dira mailegu-kopuruei dagokienez. Horrela sailkatzen dira:

Helduen liburutegia: 17.448

Haurren liburutegia: 13.162

Euskaraz: 8.877

Liburu digitalak: **1.866**⁶

Desideratak

Desideratak erabiltzaileek Liburutegian ez dugun zerbait nahi dutenean egiten dituzten erosketa-eskaerak dira.

Eskabide horiek baloratu egiten dira, eta, komenigarritzat iritziz gero, erosi egiten dira.

⁵ Euskariana: <https://www.euskariana.euskadi.eus/euskadibib/es/home/home.do#>

⁶ Datu hau ez dago sartuta mailegu orokorrean

2022an **265 desiderata** egin dira; horietatik 261 onartu dira eta 4 baztertu.

Internet zerbitzuaren erabilera

4.282 saio egin ziren erabilera publikorako ditugun ordenagailuetan, **627** Haur Liburutegian eta **3.655** Helduen Liburutegian

Web-orria, OPAC-en egindako kontsultak eta sare sozialak

Web-orria

<https://www.eibar.eus/es/cultura/biblioteca>, gaztelaniazko web-orriak **15.082** bisita izan zituen.

Atal bisitatuenak honako hauei buruzko kontsultak izan ziren: katalogoa, informazio orokorra eta ordutegia, liburuen, filmen eta diskoen nobedadeak, zerbitzuak eta erabilerak, antolatzen diren jardueri buruzko informazioa eta haur-liburutegiaren bloga.

<https://www.eibar.eus/eu/kultura/jsm-liburutegia> euskarazko web-orriak **2.899** bisita izan zituen.

Atalik kontsultatuenetakoak hauexek izan ziren: haurrentzako irakurketa-gidak, informazio orokorra, liburu, film eta diskoen nobedadeen kontsulta, katalogoa, online zerbitzuak, argitalpenak, informazio orokorra eta ordutegia, zerbitzuak eta erabilerak, eta haur-liburutegiaren bloga.

19.963 bisitetatik, % **84k** gaztelaniaz egin dute eta % **16k** euskaraz.

OPAC (catálogo en línea)

Bilaketak OPAC-en (katalogoan): **11.078**

Sare sozialak

Sare sozialei dagokienez, hauexek dira datuak:

	2020	2021	2022
	Jarraitzaileak	Jarraitzaileak	Jarraitzaileak
Facebook	582	595	588
Twitter	847	883	911
Instagram	311	445	543
Sare sozialak guztira	1.740	1.923	2.042

Zenbat eta gehiago argitaratu, orduan eta interakzio gehiago lortzen da. Twitterren bidez jarraitzen digutenak dira interakzio gehiena dutenak eskaintzen dugun edukiarekin, eta bigarren tokian Instagrameko erabiltzaileak daude. Facebooken, jarduera txikiagoa da.

[Haur Liburutegiaren blogari](#) dagokionez, hauexek dira emaitzak:

	Erabiltzaile- kopurua	Saio-kopurua	Bisitatutako orriak
2022	758	1.456	3.139

Zer gailutatik konektatu den:

Ordenagailua: 82,5 %

Sakelako telefonoa 17,00 %

Tableta: 0,5%

Liburutegiko jardueretan izandako partaidetza

Hainbat talde daude parte hartzen dutenak antolatzen diren jardueretan, eta ikasturte-hasieran izena ematen dutenak: irakurketa-klubak, ikastetxeen bisitak... Gainera, sarrera librea duten hainbat ekitaldi egiten dira, hala nola ipuin-kontalarien saioak, liburu-aurkezpenak eta tailerren bat edo beste.


Urtean zehar **jarduera** horietan parte hartu duten pertsonak **2.697** izan dira (2021ean baino **782** gehiago), **261 saio** antolatuta (2021ean baino **70 saio** gehiago).

Erabiltzaileak

Liburutegira datozen pertsonak


Iaz **96.246 pertsona** etorri ziren Liburutegira Haietatik, **36.923 goizez** etorri ziren eta **59.314 arratsaldez**.

Nahiz eta pandemia aurreko bisitari-kopuruetara ez iritsi, **gainditu** egin da kopurua 2021arekin alderatu, **% 28,62an**. Aforoa murriztua egon da urtearen zati batean.



Bazkideak

2022an **494 bazkide berri** izan genituen; guztira **11.817** dira.



Kontuan hartu behar da ezen Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko kide izanik, non txartel bakarra dagoen, gure erabiltzaileak artatzeaz gain beste heri batzuetakoak diren pertsonak ere artatzen ditugula.


Bazkideak adinaren arabera

2022an Liburutegiko txartela eskatu zuten pertsonen % 52,22 **14 urtetik beherakoak** izan ziren. Neska-mutikoen proportzio altua **Bularretik Mintzora** programaren eraginari zor zaio eta

baita Umeen Liburutegiari eman zaion bultzadari ere, erabiltzaileei trebakuntza eman baitzaie ikastetxeko ikasleekin etor daitezten Liburutegiko zerbitzuak eta funtzionamendua ezagutzera.

Baina datuak modu orokorragoan hartuta, bazkideen % **31 41 eta 65 urte artekoa** da eta % **23 15 urtetik beherakoa**.

Ikasleek asko erabiltzen dute Liburutegia irakurketa-gela bezala, baina gehienak ez dira bertako bazkide. Nahiz eta Eibarren pertsona jubilatu asko egon, oro har ez dira Liburutegiko bazkide. Nahiz eta kontuan hartu behar den hemeroteca-zerbitzua erabiltzeko ez dela beharrezkoa liburutegiko txartela edukitzea.



Irakurle aktiboak

Irakurle aktiboak dira mailegu-zerbitzua erabiltzen dutenak.

Txartela dutenak eta mailegu-zerbitzua gutxienez urtean behin erabili dutenak 2022. urtean.

Guztira 3.066 izan dira, eta adinaren eta irakurle motaren arabera sailkatuz gero, honelaxe geratzen da taula:

	Helduak	Umeak	Erakundeak	Beste liburutegi batzuk
2022	1.769	1.250	47	0

Funts bibliografikoa

2022an **3.491 ale** gehitu ziren Liburutegiko bildumara. Horietatik gehienak berriak izan ziren, baina tartean baziren ondare bibliografikoari dagozkionak, atzera-begirako katalogazioari dagozkionak, edo dohaintza bidez emandakoak.


Dagoeneko 89.182 dokumentu ditugu eta gure ekipamenduak ezingo du askoz gehiago hartu. Beraz, orain arte espurgatu ditugunak baino liburu gehiago erretiratu beharko ditugu. 2022an **1.924 ale espurgatu dira**.

Ez ditugu hemen sartu **eLiburutegia** funtsa osatzen dutenak, alegia, Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzuak eskuratutakoak Sare osoko mailegu digitalerako: guztira **25.400 liburu digital**, **80 audioliburu**, **591 liburu Daysi formatuan**, **27.434 pelikula**, eta **752 aldizkari**, **36.053 alerekin**.

Maileguak

2022an 36.610 mailegu egin ziren, 101 egunean, **egunean batz beste 6 mailegu gutxiago** 2021ean baino. Oraindik ez da berreskuratu pandemia aurretik geneukan erabilera.

Maileguaren datu horri gehitu behar zaio liburutegiarteko mailegu bidez kudeatzeko aukera ere badagoela; eta modu horretan **3.487 dokumentu** kudeatu dira.



Helduen atalean egindako maileguak

2022an gehien mailegatu diren nobelak hauexek dira:



Aitaren etxea
(Karmele Jaio)
Elkar, 2019



Dendaostekoak
(Uxue Alberdi)
Susa, 2020



Soltero en dantzalekuak
(Joxean Agirre)
Elkar, 2022



La bestia: Madrid 1834
(Carmen Mola)
Planeta, 2021



La novia gitana
(Carmen Mola)
Alfaguara, 2018



El secreto de la boticaria
(Sarah Penner)
Harper Collins, 2021


Gehien mailegatutako DVDak:



El señor de los anillos: trilogía




Patria




Doctor en Alaska

Maileguaren bilakaera azken 5 urteotan haxe izan da:



Helduen atalean mailegua jaitsi egin da euskarri guztietan. Grafiko hau ikusita, liburutegietan beheranzko joera orokor bat dago eta suposatzen dugu formatu digitaleko irakurketak gora egingo zuela.




Euskarriari dagokionez, liburua da protagonista, argi eta garbi; hurrengo DVDak daude, eta jarraian musika eta aldizkariak. 2021ean CD-ROMak espurgatu genituen, izan ere, formatu hori jada ez zen mailegatzeko.

Azken urteotan mailegu tradizionala jaisten ari da. Interneteko kontsultak eta irakurketa digitala asko nabaritu dira Liburutegietan, eta ikusten ari gara mailegu-kopurua behera egiten ari

dela. Horrekin batera, pelikula eta telesailen harpidetza-plataformak goraldi bat izaten ari dira (Netflix, HBO...), eta baita musika entzutekoak diren harpidetza-plataformak ere, hala nola Spotify.


Umeen atalean egindako maileguak

Azken 5 urteotan Umeen Liburutegian egindako maileguaren bilakaera grafiko honetan ikus daiteke:



2021ean baino **186 dokumentu gutxiago** laga dira maileguan. Azken urteotan umeentzako liburuen maileguen igoera izan badugu, Bularretik Mintzora programari, irakurketa-klubei eta ikastetxeei liburu-sortak mailegatzeari esker izan da. 2020. urtearekin alderatuta, berreskuratzen ari da mailegu-zerbitzua.

2022. urtean gehien mailegatu diren liburuak, euskaraz eta gaztelaniaz, hauexek izan ziren:



Kopetilun
(Émile Jadoul)
Ttartalo, 2015



Lorea doktoarearen botika-kutxa
(Miriam Moss)
Ibaizabal, 2020



Nire maitea
(Astrid Desbordes, Pauline Martin)
Ttartalo, 2015



Yo-Kai watch
(Noriyuki Konishi)
Norma, 2016-



Doraemon
(Fujiko F. Fujio)
Planeta Cómic, 2016-2017



El gran refugio de mascotas
Destino, 2021

Gehien mailegatutako DVDak:



La vuelta al mundo de Willy Fog




Spider Man: trilogía completa




La pantera rosa

Azken bost urteotako maileguak, euskarriaren arabera, hauxe izan dira:




Grafikoan ikusten da aldizkariak, diskoak eta CD-ROMak ia ez direla mailegatzten.

Maileguak hizkuntzaren arabera




2022ko mailegu-portzentajeak hizkuntzaren arabera hauexek izan dira: **% 29 euskaraz % 67 gaztelaniaz eta % 4 beste hizkuntza batzuetan**. 2020an: % 28 euskaraz, % 67 gaztelaniaz eta % 4 beste hizkuntza batzuetan.

Mailegua sexuen arabera



Datu hori ez da aldatu, are pixka bat igo da emakumeen datua, haiek baitira mailegu-zerbitzua gehien erabiltzen dutenak: **2022an % 61 emakumeak eta % 39 gizonak**

Maileguak adinaren arabera



Maileguaren % 32 umeek egin zuten; datu hori esanguratsua da, bazkideen **% 23, 29** bakarrik baitira **15 urtetik beherakoak**.

Automailegua

Automaileguko makinan egindako maileguak **1.221 dokumentu** izan dira, **1.219 pertsonak** eginak.

Liburutegiarteko mailegua

Haxe da Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegien zerbitzu izarretako bat. Sareko edozein liburutegitako txartela duen erabiltzaileak Sareko funtsera jo dezake, aukeratzen duen liburutegiko erakusmahaiari eskatuta. Alegia, bere liburutegian eskuragarri ez dagoen funtsa eskura dezake Sareko beste liburutegi baten bidez, eskaera bat eginda.

Datuei dagokienez, hauexek dira 2022an jaso direnak: **3.487 liburu**, 2021ean baino **555 gehiago**. Datu horietan sartzen dira irakurketa-klubek eskatutakoak, liburuez hornitzen baititugu, eta aurrean askoz ere saio gutxiago egin dira.

Beste liburutegi batzuei lagatako dokumentuak: **1.891** (denak Sarearen barruan).

Eskatutako dokumentuak: **1.596** (1.586 Sarearen barruan, 4 Koldo Mitxelena Liburutegira, 1 Salamancako Unibertsitate Pontifizioko Liburutegira, eta 5 Zamorako Liburutegi Publikora).

Irakurketa-klubei **mailegatutako loteak: 543 liburu, 37 liburu-sorta**.

Maileguetan sartuta daude gure irakurketa-klubentzako liburu-sortak.

10 irakurketa-talderi lagatzen dizkiegu liburuak: Liburutegiko helduen klub biak (euskarazkoa eta gaztelaniazkoa) eta umeen bi taldeak; bai eta Eibarren dauden honako klub hauek ere: Pagatxa, Biztu, Litertxoko, San Andrés Egoitza, Egogain Zentro Gerontologikoa (URTMS), AGIFES eta ATZEGI. Horrek nabarmen handitzen du liburutegiarteko mailegua, batez ere, eskatutako liburuena.

Hauexek dira lagatutako loteak:

Agifes (Irakurketa erraza): 6 lote = 60 mailegu

Atzegi (Irakurketa erraza) lote 1 = 10 mailegu

Biztu: 9 lote = 180 mailegu


Egogain (Irakurketa erraza): 7 lote = 70 mailegu

Litertxoko: 9 lote = 180 mailegu

San Andrés Egoitza (Irakurketa erraza): 3 lote = 30 mailegu

Zurumurruren aurkako Laborategia irakurketa-kluba: 2 lote = 13 mailegu


Guztira, hortaz, **543** izan dira liburutegiarteko mailegutzan irakurketa-klubei lagatako loteak. Zerbitzua hau hazi egin da aurreko urteekin alderatuta, baita pandemia aurrekoekin ere.



eLiburutegia zerbitzua

eLiburutegia Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegiek eskaintzen duten zerbitzua da, eta Internet bidez eduki digitalak irakurtzea errazten duen plataforma bat da, bai streaming bidez, bai ordenagailuan edo gailu mugikorretan. 2018az geroztik zinema eta ikus-entzunezkoak online ikusteko aukera ere ematen du. 2021az geroztik aldizkariak ere sartu dira. Zerbitzu honen hasiera-orria hau da: www.eliburutegia.euskadi.eus

Zerbitzu hau erabili ahal izateko Sareko edozein liburutegitako bazkide-txartela baino ez da eduki behar.



2022an **102 eibartar gehiago** izan genituen **eLiburutegia** zerbitzuan. Guztira, **1.866 liburu** deskargatu dira Eibartik; kopurua handiagoa da 2021ekoarekin alderatuta.

874 pertsonak erabili dute plataforma 2022an.

eFilm filmak deskargatzeko plataformari dagokionez, 2022ko datuak honako hauek dira:

Guztira 27.434 ikus-entzunezko daude liburutegien sarrerako. Horietatik, **10.782** mailegatu dira 2022an.

2022an **552 erabiltzaile berri aktibo izan dira**. 2022an **lehen aldiz zerbitzu horretara sartu direnak 2.042** izan dira. 2022an zerbitzua emaile gisa erabili dutenak **10.782** izan dira.

KONTUAK

Diru sarrerak

DIRU-SARRERAK GUZTIRA	20.789 €
DIRULAGUNTZAK	20.789 €
Eusko Jaurlaritza	17.583 €
Funts bibliografikoak berriztea	7.833 €
Irakurzaletasuna bultzatzea	3.599 €
Teknologia berriak ezartzea eta garatzea	1.878 €
Funts bibliografikoak berriztea (Next Generation)	4.273 €
Kultura eta Kirol Ministerioa	2.778 €
"María Moliner" lehiaketa: irakurtzea sustatzeko proiektuak	2.778 €

Gastuak

GASTUAK GUZTIRA ⁷	81.811 €
2. Kapitulumua	77.678 €
Ekipoen mantentze-lana	1.576 €
Makinak, instalazioak eta tresnak	1.576 €
Funts bibliografikoa eta ikus-entzunezkoa	35.641 €
Egunkariak, aldizkariak, liburuak eta beste argitalpen batzuk	29.660 €
Beste hornidura batzuk	5.981 €
Publizitatea, sariak	672 €
Protokoloa eta ordezkariak	672 €

⁷ 1. Kapitulumuan ez dira pertsonal gastuak sartzen

Argitalpenak, publizitatea eta propaganda	0 €
Jarduera sozio-kulturalak	24.238 €
Bilerak eta hitzaldiak	2.042 €
Kontratu soziokulturalak	22.196 €
Kanpoko beste lan batzuk	15.551 €
Armeria Eskolako Funtsaren Katalogazioa	15.551 €
4. Kapitulua	2.025 €
Irabazi asmorik gabeko erakundeei emandako dirulaguntza (Eibar aldizkaria)	2.025 €
6. Kapitulua	2.108 €
Segurtasun-ekipoak	2.108 €
Bideozaintza-sistema	2.108 €

PRESTAKUNTZA

IKASTAROA	MODALITATEA:	NORK EMAN DUEN	PARTE HARTZAILEAK
Diseño de escaparates culturales	Online (Zoom)	ALDEE	3
Mailchimp I: Cómo hacer e-mailing para tus clientes	Online	SPRI	1
Instagram I eta Instagram II	Online	SPRI	1
Hizkuntzaren erabilera ez sexista	Presentziala	Servicio de Igualdad del Ayuntamiento, por la empresa Idoia Eizmendi Aldasoro	1
Sare sozialen erabilera profesionala administrazio publikoetan	Online	Servicio de Comunicación y Transparencia del Ayuntamiento. Profesora: Nagore García Sanz.	1
Gestión de la atención al usuario en bibliotecas	Online	ALDEE	2
Prozedura administratiboa eta administrazio elektronikoa	Presentziala	Ortzi de la Quintana	4

HORREZ GAIN ...

Armeria Eskolak emandako funtsa



2022an Ereiten Kultur Zerbitzuak enpresa kontratatu zen Armeria Eskolak emandako funtsetik geratzen zena katalogatzeko. **610 erregistro** katalogatu dira, ia denak monografiak, eta **941 kopiari** eman zaie alta. Funts hau Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen katalogoan kontsultatu daiteke.

Guztira, dohaintzan emandako funtsak **2.193 erregistro** eta **2.507 ale** ditu, gehienak monografiak.

Ia **1.010** ale 1958 baino lehenagokoak dira, eta, beraz, ondare bibliografikoa.